

NUEVOS EXTRACTOS

DE LA
REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS
AMIGOS DEL PAÍS



Suplemento nº 9 del Boletín de la R.S.B.A.P.

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN
1998

NUEVOS
EXTRACTOS

DE LA
REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS
AMIGOS DEL PAÍS



Lecciones de Ingreso como Amigos de Número
de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País
(Comisión de Gipuzkoa)

Conferencias pronunciadas con motivo de los Actos de Ingreso de
LUIS M^a MUJICA URDANGARIN
Y GILLERMO ETXEBERRIA

NUEVOS EXTRACTOS

DE LA
REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS
AMIGOS DEL PAÍS



Suplemento nº 9 del Boletín de la R.S.B.A.P.

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN
1998



Edición patrocinada por el Ministerio de Cultura

DE LA
REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS
AMIGOS DEL PAIS



Depósito Legal: S.S. 1.609/98
BIZKER, S.L. - Lasarte-Oria

AURKIBIDEA

EUSKAL LEXIKOA ETA LATINOA ELKARREN UKITUAN	
Luis Mari Mujika Urdangarinek	9
1.- Hizkuntzen arteko harremanen esparruak	13
2.- Mailegu latinoen maila fonetikoak	16
3.- Mailegu erromanikoez zerbait	19
4.- Ondorio zenbait	20
EL LÉXICO VASCO Y LATINO EN RELACIÓN	21
Jose Maria Urkia Etxaberen Harrera hitzak	25
ORIXEREN METRIKARI BURUZ	
Gillermo Etxeberria Ugaldek	29
0.- Sarrera	33
1.- Orixeren neurtitz ikasketak eta teoria	34
2.- Orixe autore “belarritarra”	34
3.- Sei etena oinarri eta balantza	35
4.- Orixeren “cantabile”ak. Balantzak	38
5.- Azken balorazioa	39
6.- Azken hitza	39

EUSKAL LEXIKOA ETA LATINOA ELKARREN UKITUAN

E.A.Elkartean Sarrera Ikasgaia

LUIS M^a MUJIKA URDANGARINEk

Donostian 1997ko Abenduak 29
irakurritako hitzaldia
Kutxa Fundazioaren Dr. Camino Mintegian



Biblioteca Dr. Camino (29-XII-97)
De izquierda a derecha
José M^º Urkia, Luis Mari Mujika, Juan Antonio Garmendia
Gillermo Etxeberria, Jon Bagüés.



José Antonio Zabala impone a Luis M^ª Mujika la medalla de la Sociedad

1.- Hizkuntzen arteko harremanen esparruak

Beti izaten da interes handikoa hizkuntza baten ibilbidea aztertzea. Gure hizkuntzaren kasuan, ordea, oztopo handi batekin aurkitzen gara, ezen bere jatorriaz ezer gutxi dakigu. Hain zuzen, euskara, ERROMANIA nagusiko hizkeraz inguratua egon arren, bakarra da penintsulako aspaldiko hizkuntzen artean bizirik irauten. Iritziak ematerakoan —diakronia bat eraikitzerakoan— kontutan ukan behar dugu Iberiako hizkera aintzineko guztiak, alegia, iberiera eta keltera, besteen artean, aspaldi itzali zirela, eta guk euskaldunok euskararen altxorra bizirik gure belaunaldietaraino ekartzea benetako miraria izan dela. Bestetan bezala, teoria anitz dago euskararen superbizitza, historian zehar, esplikatzeko. Gure herriko orografia izan daiteke esplikaziotako bat, baina ez bakarra. Bere iraupena, bereziki, basoaldean eman da, hots, aspaldiko *Ager Vasconum* delakotik gorago. Guk gaur adierazgarri dugun gaiak zerikusia ukan zuen erromanizazioarekin. Hain zuzen, euskarak —eta bereziki bere lexikoak— latina eta hizkuntza erromanikoekin duen erlazio nagusia harremanetan ezarri behar da; superbizitze historikoaren arrazoin nagusienetako bat latinizazio eta erromanizazio lexikala izan zen.

Beraz, hurbilagotik aztertzekoa da erlazio bitxi hori. Esan dezakegu euskarak —mintzaira ez-latinoa izan arren— berealdiko irekiera azaldu zuela latinarekiko (eta geroago ertaro garaian inguruko hizkera erromanikoekiko); hitz multzo handia bereganatzeko ahalbide miragarria erakutsi zuen. Harrigarria izan zen, alegia —bere morfologia funtsean ukigabe mantenduz—, nola asmatu zuen kulturabide izanen zitzaion milaka eta milaka hitz latino bere baitara ekartzean (hori, bai, beti bere lege fonetikoaren bahetik igarota). Gaur egun latina eta euskararen erlazioak ez dira ezartzen “in-sistema” gisa, “bi-sistema” bezala baino. Euskarak bere nortasun morfologikoak mantentzen ditu gehienbat —mintzaira latinoen esparrutik zeharo desberdinak direnak...—, baina lexikoan latinaren eragin itzela onartu du. Beraz, gure kolingualismoa latinarekikoa (eta geroago mintzaira erromanikoekikoa, hau da, gaztelania

zaharra, gaskoina, frantsesa, aragoierarekikoa...) “bi-sistematik” ulertu behar da, eta, inolaz ere ez, “in-sistematik”.

Horrek adierazten du euskara latinaren ukituan aurkitu zenetik euren elkar-eraginak azalekoak izan zirela, hots, mailegu lexikalen arlokoak soilik, eta ez morfologiarenak (gehienbat, behintzat). Aportazio lexikalak, bere alde-tik, lege fonetiko propioen bahetik pasarazi zituen modu hertsian —edo era aski orijinalen—, ezen eta gureganaturiko uholde lexikal hark euskal ohitura fonetikoaren eragina nabarmen zuen ñabardura anitzetan, hala nola, hitz hasiera-ko oklusiben trataeran, bokale arteko sudurkarien erorketan, latineko diptongo zenbaiten kontserbazioan, eta beste anitzetan.

Baita aitortzekoa da, lexikoaz gain, gure toponimiak eta antroponimiak latinaren eragina jasan zuela, bereziki, *-ano*, *-ana*, *-ain*, *-iz* atzikiaren kasuetan (*Belaskoain*, *Beriain*, *Paternain*, *Amillano*, *Durana*, *Maturana*, *Betrikiz*, *Periz* gisakoak lekuko direlarik). Noski, mendialdean eta itsasaldean antroponimia arrotzaren edo latinoaren aztarnak ahulagoak dira, eta, gehienbat, Gipuzkoa uzkurragoa azaltzen da eragin hartara. Aldiz, hegoaldera dagoen eremua eragin latinoaren edo erromanizazioaren gune bilakatu zen. Nafarroa erdialdean, bereziki, oso nabariak dira latin kutsuko antroponimiaren urratsak; horrek hala ere, ez du adierazten euskara latinaren ukitu geografikoan zeharo itzali zenik. Hain zuzen, antroponimia latina oso bizirik aurkitzen den eremuetan —Iruñerriko eskualdean, adibidez—, euskara bizirik egonen zen ia XIX mendeko amaiera arte, gune askotan. Dudarik ez, iparralderago ere antroponimia latinao aurki daitekeela oraindik euskararen esparrua den gunetan, Orendaian (lat. *Aurentiani* ?), Luku (lat. *lucum*), Doneztebe (lat. *Dom(i)ne Stephane*), Donaixti (lat. *Dom(i)ne Juxti*) kasuetan bezala.

Ez dezagun ahantz Ponpeioren armadak Xto. aurretik ezarri zituela bere kasernak Irunean edo Pompelo (Pamplona) delakoan. Vaskoien tribua —Nafarroa gehienez hedatua— erromatarren garaian, jada, erromanizaturik ageri zen —antza— hegoaldeko Cascantum aldean, eta bestehainbeste Calagurris aldean. Hizkuntzalari batzuek uste dute iparralderagoko barduliar eta karistiar tribuak vaskoiek euskaratu zituztela. Hipotesi hori probakizun geratzen bada ere, ezin ukatu euskarak Nafarroan ukitu historikoak ukan zituela erromatarren zibilizazioarekin. Batz bestea, dena den, erromanizazioak Euskal Herrian ukano eragina Betican, Tarraco aldean eta beste anitzetan emana baino apalagoa izan zen. Erromatar historigileen adierazpenak gure kasuan ahulak, etenak eta, maiz, fidagarritasun urrikoak dira. Ez zuten ongi ezagutzen gure lurraldea, eta oztopoak zituzten, adibidez, gure toponimoak edo lekuizenak behar bezala transkribitzeko unean. Pompelo-Oiasso bidea —beste ibilbide nagusiekin gonparatuta— garrantzi urrikoa izan zen. Bere eragina, itxuraz, merkataritzara mugatu zen, ezen bestela euskarak ez zuen bizirik ukanen gaur Bidasoaren

itsas-ahoan. Euskararen depresio demografikoa Bidasoa aldean geroztikoa da, hots, XX mendeko industri iraultzari loturiko fenomenoa.

Hala eta guztiz, goian esan dugunez, ukaezina da gure lexikoak jasaniko latinaren eragin zabala, edozein aztertzailek —kulturaren arlo desberdinak hartuz— aski erraz jaso dezakeena. Bereziki, administrazioari, erlijioari, nekazaritzari, botanikari, merkataritza eta gailuen nomenklaturari loturiko lexikoan elementu anitz latinarekin harremanetan ageri dena, dudarik gabe. Euskara eta latinaren arteko harreman lexikal nagusi hori explikatzeko hizkuntzalari batzuek hiru arrazoin nagusi eskaintzen dituzte:

1) *Soldaduen eragina*. Jatorriz euskaldun ziren soldaduek, erromatarren armadatik etxera itzultzean, probableki, latindarren kulturako aparailu bildu eta beste aportazioak eginen zituzten. Horrelakoetan gertatzen denez, kultura garaigoko aportatzaileek —kanpotiko gailuekin batera— tresnen kanpotar ize-nak eskainiko zizkiguten euskaldunoi. Historikoki, beraz, euskal gudaritaldeak aipatzen dira, han-hemen, erromatarren armadan present (“Cohortes vasconum” eta “Ifida vardulorum milliaria” delakoak). Logikoa denez, kultura garaigoko herriak maila apalagokoari aportazioak egiten dizkio: mailegu lexikalak gailuekin batera sartzen dizkio.

2) *Merkataritzaren eragina*. Merkataritzak garrantzia handia du herrien garakuntzan, eta historikoki teknikaz aurreratuago dauden kulturek euren aportazioak egiten dizkiete egoera askoz basati edo apalagoan irauten dutenei. Ezin ukatu erromatarrek penintsulara etortzean bertan kokaturiko herrialde eta tribuak —Europa gehienean bezala— egoera tekniko atzeratuagoan —eta elementalagoan— aurkituko zituztela. Merkataritza zentzu hedatuan hartzen dugu hemen, eta aipagarri bertan abeltzaintza eta nekazaritza ere, harreman komertzialekin duen lexikoa nagusitzen lagundu zutelako. Hortik, bada, gure botanikak eta aparailuen nomeklaturak latinarekiko isladatzen duen menpekotasun lexikal itzela. Ez dira, beraz, ahanztekoak hurrengo maileguak botanikan: gaztaina (lat. *castaneam*), biku/piku (lat. *ficum*), ziape (Lat. *sinapem*), biper/piper (lat. *piperem*), gerezia (lat. *caereseam*), mertsika (lat. *persicam*); nekazaritzarekin loturiko gailu edo tresnetan aizkora (lat. *asciolam*), akullu (lat. *aculleum*), errota (lat. *rotam*), soro (lat. *solum*), labore (lat. *laborem*); eraikuntzaren esparruan, berriz, murru (lat. *murum*), gela (lat. *celam*), *-ola* atzizkia (probableki, lat. *aulam*-etik), korta (lat. *cohortem*), solairu (lat. *solarium*), zoru (lat. *solum*), langa (lat. *plancam*), gaztelu (lat. *castellum*), katea (lat. *catenam*), kisu (lat. *gypsum*) (*igeltso*, aldiz, berantagoa da, hots gaztelaniz zaharreko *yelso*-ren jatorrikoa).

Jakina denez, merkataritza funtsezkoa gertatu ohi da herrien harremanetarako ekonomia ahaltsua duenak maila atzeratuagoan dagoen herrian eragiten du, eta eragin horietan ematen da ekarpen berrien emaitza; hitz batean, herri

aurreratuak atzeratuari teknika berriak eta bere kulturako gailuak eskaintzen zizkion, eta noski, gailuak edo aparailuak bere deiturekin batera entregatzen. Egitate horren baitan esplikatzen da, nagusiki, hizkuntza batek bestearengan ukan dezakeen eraginetako bat. Merkataritzaren arloan nabarmen: merke (lat. *mercem*), merkatarri (lat. *mercatorium*), lukuru (lat. *lucrum*), (*garesti*, berriz, mailegu beranta dugu, probableki, hots, *caestía* erromanikotik sartua). Beste kasuetan bezala, euskarariko latinismoek oklusiben ozendura, bokale arteko sudurkarien erorketa, txistukarien aldaketak (edo eta *-au* diptongo latinoak eta *i/u* bokale laburren euspena bokalismoan) isladatzen dituzte.

3) *Elizaren eragina isladatzen duen lexikoa*. Nahiz eta historiagile gehienek onartu Euskal Herrian basoaldeko esparruetan kristautasuna aski berandu sartu zela (agian IX, X mende aldean...), ezin ukatu hirialdeetan —eta egoaldean bereziki— bere testigantzak ziurrak eta zaharrak direla. Penintsulako kristautasunaren lehenengo mendeetan, batez ere, IV mendea ezkeroz, Pompelona eta Calagurris hirietan kristauguneak ongi egiaztatuta zeuden, beti eliza organizatu baten inguruan. Eliz liturgiarekin loturiko lexiko latinoak oso bizia da gure hiztegi zaharrean. Hitz horiek, maiz, elementu zehatzen deiturak dira, baina beste askotan kontzeptu teologikoen adierazpen ere, hots, kristau dotrinarekin elkarturiko izenak. Beraietan, maiz, aportazio berantagoak azaltzen dira fonetika aldetik, lat. *crucem*-etik *gurutze* eta *coelum*-etik *zeru* bezala (ezen-eta bi mailegu horietan ez da ageri aportazio aintzinagokoetan ematen den belare zaharrik (lat. *pacem* > *bake*, lat. *baccila* > *makila* kasuetakoa, hain zuzen); horietan asibilapen puntua atzeratu egiten da, hizkera erromaniko gehienetan gertatu zenez. Hona bada, eliz eta liturgi esparruko mailegu ezagun zenbait: aingeru (lat. *angelum*), arima/anima (lat. *animam*), sekula (lat. *saecula*), nativitate (lat. *nativitatem*), domu-santuru (lat. *dominorum sanctorum*), ispiritu (lat. *spiritum*), apezpiku (lat. *grekoan episcopum*), bezpera/mezpera (lat. *visperam*), matutiak (lat. *matutina*), zeru (lat. *coelum*), obenda (lat. *offerenda*), garizuma (lat. *quadragesimam*), bekatu (lat. *peccatum*), abendu (lat. *adventum*), etabar.

2.- Mailegu latinoen maila fonetikoa

Goian baietsi dugunez, berealdiko garrantzia du fonetikak lexikogintzan, zeren berari esker kanpo aportazioak, nolabait, *euskaldun* bihurtzen dira, eta gure hizkuntzaren baitan emaniko lege fonetikoak maiz ez dira inguruko mintzaira erromanikoen egitate berekoak.

a) Euskal bokalismoak frantsesa edo gaskoina baino errealizazio ximpleagoa du, eta gaztelania bere bost unitatezko soiltasunez ukitzen du, gehienbat. Beraz, funtsean, kointzidentzia handia euskal eta gaztelaniar bokalismoaren ar-

loan, inguruko hizkuntza erromanikoen artean bera izaki hurbilena; askoen ustetan gaztelania euskaldun latinizatuen ahoan jalgitako mintzaira erromani-koa litzateke, nolabait.

Euskarak, bestalde, bere artikulazio-puntu bereziak ditu, gaztelaniarekin bat ez datozenak, baina, funtsean, bost unitatezko errealizazioak (askoz konplexuagoak gaskoineran eta frantsesean) euskararen eraginean daude.

Kanpotar eragina nabaria da, adibidez, bokale zenbaiten nasalizazioan (*arrazû*, S. (lat. rationem), *faisû* (lat. factionem), probableki, gaskoineraren eraginez. Gainera, hitz zaharragoetan nolabaiteko nasalizazio azal bide da *korôa* (lat. coronam), *dohâri* (lat. donarium) maileguetan. Bestalde, galizieraz eta portugaleraz hain ezaguna den bokale arteko sudurkariaren erorketa ere nabarmen gurean: balenam > *balea*, catenam > *katea*. Antroponimiam eta toponimiam biziki gertatzen da fenomeno bera (*Lazkao*, *Galdakao*, *Lemoiz*, *Arroa* tokizenetan, adibidez.).

Ezin ahanzi da, orobat, euskarak soildu egin dituela maiz —errealizazio beraz emanek— latineko bokale luze eta laburrak (*ala*, *ele...* gisakoak, kopuruari dagokionez). Jakina denez, latineko hamar bokaleen errealizazio nabarra Mendebaleko Erromania nagusian zazpita jaitsi zen, eta euskararen bere islada bostera murriztu, gure hizkuntzaren joera soiltzaileak kontutan izanik. Alabaina, gurean *i* laburra aldaketarik gabe azaltzen da piperem > *bIper*, puteum > *pUtzu* kasuetan; gaztelaniaz, aldiz, *i* laburra *e* errealizaziora igaro zen, eta *u* laburra *o* errealizaziora (putem > *pOzo*, cepullam > *cebOlla* (euskaraz, berriz, *kipUla* / *tipUla*).

Bokale azentudunetan euskararen euspina nabaria da *a* kasuan: palam > *pAra*, astrum > *Asturu* (anaptixiaz), cammaram > *gAmbara* (nahiz eta mailegu honetan *mb* talde beranta azaldu, adibidez, aragoieran ematen zen aldaketaz); beste hainbeste, fagum > *bAgolfago* kasuan. I bokale azentuduna nabarmen da lat. picem > *blke* delakoan. Aldiz, *fidem* maileguak *e*-ra aldaketa beranta, seguraski, eliz latinaren eraginez. Bokale azentudunetan *u* laburraren euspina (*o*-ra ireki gabe) furcullam > *urkulla*, cucullam > *kukulla* maileguetan. Gaztelanian, berriz, irekiera nabarmenki gertatu da furcam > *hOrca*, cucullam > *cogOlla* hitzetan.

Bokale azentugabeek, gehienbat, euskarara iritsiriko hitzetan mantendu egin dira —azentu bortitzagoa duten euskalkietan ezik, hala nola, zubereraren, erronkarieraren, eta zaraitzueraren, bereziki—. Honela lat. angelum > *aingeru* (baina *aingru* Sal.), lat habere > *abere* (baina *abre* AN.), lat cepullam > *kipula* (baina *tipla* Sal.).

Aipamen berezia merezi dute hitz barneko beste bokale atonek. Nabaria zen latin berantean formula oso eta silaba murriztagoko hitzen arteko zalantza,

hala nola, *del(i)catus/delcatus* (delgado), *cal(i)dus/caldus* gisakoetan. Dudarik gabe, hurrengo hitzak euskarara barne bokalismoa ukituta —hots, elementu bokaliko batzuk jautsita— iritsi dira. Adibidez: lat. hos(pi)tatum > *ostatu*, te(gu)llatum > *tellatu*, di(gi)talem > *ditare* (dedal), ca(the)dram > *kadira* (*gurera* gask. *cadère*-ren bitartez). Hor atzetoniko eta aurretoniko diren bokaleen erorketa nabaria da. Geroago, laburdura bokaliko berarekin mintzaira erromanikoetatik gurera *pezta* (peseta), *pastu* (pasar), *deskonpondruik* Sal. gisakoak. Latinetik antzeko laburduraz edo bokale-jausketaz gurera *tenpra* Sal. lat. tempora, *tipla* lat. cepullan terminoak. Ñabardura fonetiko bera isladatzen digute bokalismoari dagokionez *nabala* (*labana* metatesiaz, lat nova(cu)llam-etik), eta *lama* (lat. lam(i)nam-etik) delakoek.

Azkenik, kontutan ukan behar dugu mailegu latinoek euskaraz zintzotasunez gorde dutela, gehienbat, -AU diptongoa, lat. causam eusk. *gAUza*, lat. lausum eusk. *IAUza* maileguetan nabaria denez. Aldameneko mintzaiteran —gaskoineran ezik— monoptongatzeko joera garbia da; gaztelaniaz, adibidez, monoptongapena causam > *cOsa*, lausam > *IOsa* hitzetan (eta, berdin frantse-sean, *chOse* delakoan).

b) Bokalismoa utzita, kontsonantismora igarotzen bagara, mailegu latinoek beste ñabardura bereziak gure hizkuntzaren ohitura fonetikoetara makurtzerakoan. Noski, dena ez da orijinala gurean, ze baditugu kointzidentziak inguruko hizkuntza erromanikoekin, adibidez, goian aipaturiko *MB* > *MM* emaitzaren kasuan, aragoieraz ere *cammaram* delakoak *caMBra* eman baitu; berdin esan daiteke ozendura zenbaitu buruz sudurkariaren ondorengo kasu berezietan. Herskarien eremuan, orobat, fenomeno bitxia bokale arteko herskari gorrak aldaketarik gabe eusten direnekoa; gaztelaniaz ozendura azaltzen da, aldiz. Adibidez: mutum > *muTu* (muDo gazt.), setam > *zeTa* (seDa gazt.), ripa > *erriPa* (riBa erromanikoan). Fenomeno bera -*eta* atzizkiaren kasuan, lat. ulmeta > eusk. *zumarreta* (gazt.- *eDa*, olmeDa); aldiz, -*ada* atzizkian ozendura azaltzen zaigu, eta, logikoki, atzizki hori beranta da euskaraz; hortik posible dira parekaketak gure *bihozkADA* / gazt. corazonADA, *ostikADA* / gazt- patADA bikoteen artean.

Hitz-hasieran, berriz, latineko herskari gorrak, oso maiz, ozendura dute euskarara igarotzean, eta gehiago iparraldeko euskalkietan. Lat. cruce[m] > eusk. *gurutze*, causam > *gauza*, certum > *gertu*. Maiz alternantziak ematen dira ozendura /ez ozendura artean hitz bat-berean ere (*bake/pake*, *gipula/kipula*, *ditare/titare*). Formula ozendua, gehienetan, arkaikotzat hartu behar da. Lehen esan dugunez, bokale artean, berriz, nabarmen euskarak oklusibo gor latinoekiko duen fideltasuna (*kiPula* < lat- cepullam, gaztelaniaz, aldiz, *ceBolla*, *luPeme* < lat. lupum, gazt. *loBo*, *biKu* < lat. ficum, gazt. *hiGo*, *joKu* < lat.

jocum, gazt. *jueGo*, ahaTe < lat. anatem, gazt. *anaDe*, ezpaTa < lat. spatham, gazt. *espaDa*, etab.).

Baditugu, bestalde, oklusiboen erorketa isladatzen duten terminoak, ma(g)ister > *maizter*, ma(g)is > *maiz*, borra(g)inem > *borraina* gisakoak. Baina arkaismo fonetikoa ageri da *kipula*, *pake*, *makilla*, *kima*, *gela*, *lege* gisakoetan; horietan *e/i* aurretiko *c/g* belare zaharraren errealizazioa ematen da, horrelakoetan mendebaleko Erromania gehienez asibilazioa gertatu zen bitartean. Bestalde, lat. *cymam* > eusk. *txima*, lat. *siceram* > eusk. *zizarra* maileguk asibilazioa pairatu zuten, eta, noski, goikoak baino berantagoak dira. Kontsonante-pilaketetan, berriz, euskarak, oso maiz anaptixiara jotzen du GR, CL, BR gisako multzoetan (*librum* > *libUru*, *gratiam* > *gArazia*, *cletam* > *kEleta*, *granum* > *gAraun*, *crucem* > *gUrutze*). Anaptixi bera hurrengo mailegu erromanikoetan: *cristiano* > *gIristino*, *grappe* > *gArapa*. Gero, berriz —jada aipua egina dugunez—, bokale arteko sudurkariaren ezabaketa jazo zen. Nabaria da fenomeno hori barneko posizioan hurrengoetan: lat. *lucanicam* > eusk. *lukainka*, *ballenam* > *balea*. Orobat, konstatagarri zenbait sasi-diptongo sudurkariaren aitzinean, hala nola, *Alngeru* < lat. *angelum*, *Aingura* < lat. *ancoram*, *orAln* < lat. *horam*. Dena den, antzeko fenomenoa substratuko hitzetan era *-aran / -arAln*, *-arAUN* formuletan toponimian (eta antroponimian Veranianum-etik *BarañAln*, Auretianum-etik *OrendAln* (Nafarroa), Paternianum-etik *PaternAln*). Sudurkariaren eremuan, bestalde, ez da ahaztekoa, euskararen ohitura zahar bat jarraituz (lat. *honorem* > *ohore/uhure*, lat. *anatem* > *ahate*, lat. *denarium* > *diharu* (*diru* sinkopaz, gure aspaldiko ginarre/*giharre*, **anari/ahari* bikoteak kontutan izanik).

3.- Mailegu erromanikoez zerbait

Goian aipatu dugunez, gure lexikora iritsitako mailegu latinoak ezin dira isolatu beste mailegu berantagoetatik, hots, erromaniko deitzen ditugunetatik. Izan ere, euskararen gune geografikoan —eta aintzinako mugetan— ertaroa ezkerotik bizi dira gaskoina eta frantsesa iparraldean, eta gaztelania (eta nafar erromantzea eta aragoiera historikoa) hegoaldean, beheko euskalkiei dagokienez. Beraz, eskema bera mailegu erromanikoen jatorriari dagokienez, euskalkiz-euskalki. Honela, gaskoinak (Okzitania nagusiko hizkera erromaniko bezezi bezala) aportazio ugariak lapurtera, behe-nafarrera eta zuberera (eta, azken honetara, zehazki, biarnoerak). Hegoaldean bizkaierak, funtsean, gaztelania zaharraren ukitua jasan du lexikalki; gipuzkerak ere gaztelaniarena —eta kostaldeko zerbait herritan gaskoinarena, orobat—; goi-nafarrerak, bere alde-

tik, gaztelania eta nafar-erromantzearen ukitu probablea isladatzen du, eta, azkenik, erronkarierak aragoiera eta biarnoerarena.

Ez dugu leku askirik hemen ñabardura erromanikoen zerrenda osoa egiteko. Latinetik datozen mailegu zaharrak erkaketa batean ezarriz, *bokalismoari* dagokionez, aipatzekoak lirake hurrengo ñabardurak (beti kontutan edukirik zein mintzaira erromaniko duen eragingarri euskalki bakoitzean):

—*au* diptongoaren mantenua mailegu gaskoinetan (*prAUbe*, *PAUbe*).

—*iu* laburren irekiera, hots *e/o* errezalizazioak euskaran (fidem > *fEde*).

—*ue/ie* diptongapenak mailegu batzuetan (gaztelaniaren mende daudentan, bereziki, *mueble*, *siesta*).

—bokale atonoen erorketak mailegu erromanikoetan —bai aurretoniko eta bai atzetoniko direnetan—: *zingla* < lat-cingulam (biarn. *singla*), *kobla* < lat. copullam (errom. *copla*), *errenta* < lat.- (errom. *renta*).

Kontsonantismoaren eremuan aipagarri:

—hasierako oklusiben ozendura zenbait (*cambio* > *gambio*, *camino* > *gamio*)

—ezpainkarien lerramendu etengabeak (F-tik *B/P/F/H* eta zerora, besteen artean; lat. *ficum* > *biku/piku/fiku/iko*, edo eta v/b-tik *m*-ra (*ventana* > *mentana*, *ventresca* > *mendreska*, *barca* > *marca*, eta p-tik *m*-ra (*palo* > *malo*, *pantofufle* > *mantufla*).

—talde kontsonantikoen soilketa FL, GL, BL gisakoetan: cast. *dobles* > *toles*, lat *plantaginem* > *lantain*, spec(u)lum / speclun > *ispillu*.

Hemengo ñabardurak, noski, beste arlo askotara heda daitezke, eta, bereziki, bokalismoaren eremuan, bai frantses eta bai gaskoin maileguen eragina isladatzeko.

4.- Ondorio zenbait

Goikoak ikusita, ezin ukatu euskarak bere *corpus* lexikalean eragin latino-erromaniko bizia jasan duela, hots, kulturako eremu anitzetara hedatzen den influentzia, eta ez, solik, eliz kultura (liturgia) edo eta nekazaritza eta merkataritzarekin zerikusia duena. Gehienak hitz aski zehatzak dira, eta eragin hori apartekoa da, batez ere, tresnen nomenklaturan. Noski, maileguetan —latinarekin zerikusia dutenei— hitz erromanikoak gehitu behar zaizkie, hots, gaskoineratik, gaztelania zaharretik, aragoiera eta frantsesetik, gehienbat, gura heldurikoak. Euskalki bakoitzak aportazio lexikal horiek, adierazia dugu-

nez, inguruko erromantzetik hartu ditu, hala nola, erronkarietak, bereziki, aragoieratik, lapurtera, behe-nafarrera eta zubererak gaskoineratik, eta hegoaldeko beste euskalkiek, batez ere, gaztelaniatik.

Egia da, hala ere, Euskal Herriko eremu handi batean erromanizazioa hilarrietan, toponimian, antroponimian, eta abar, ez zela oso sakona izan. Basoalde eta kostaldean fenomeno hori oso apala edo hutsala izanik ere, gure hizkera —morfologiaz preindoeuroparra eta ez-latinoa izaki— bortizki kutsatua gertatu zen latinismoz eta erromanizazioz. Gure ustetan, kutsadura edo eragin hori —bere neurrian gure fonetikaren konstanteak bitarteko direla— oso mesedegarri izan zitzaion, ze aportazio horiek gure hizkuntza estadio elemental batetik beste garatuagora aldatzen lagungarri gertatu ziren. Gainera, hor ahantzi-ezinezkoa da sufijazio latino eta erromanikoak gurean utzi dituen urrats zabalak —gure deribazioa biziki aberastu dutenak, adibidez, *-ari*, *-era*, *-ada*, *-os*, *eta-*, *-er* eta beste kasu anitzetan.

Euskarak, bada, historian jatorri anitzetako maileguak jaso ditu hiztegian, eta, batez ere, hemen azterturiko latina eta hizkera erromanikoen iturritik. Mailegu horiek, ordea, etxeko konstante fonetikoetara makurrarazi zituen gure hizkuntzak, eta, ondorioz, *euskaldun* bihurtu. Hori izan da gure mintzairaren mirari handienetako bat. Aportazio latino-erromanikorik gabe euskara egun askoz pobregoa, murriztagoa litzateke edozein espresabiderako. Aspaldiko txerto lexikala ongari bilakatu zaio.

EL LÉXICO VASCO Y LATINO EN RELACIÓN

No existen lenguas absolutamente aisladas. Tal es el caso de la lengua vasca, que aunque no pertenezca a la familia de los idiomas derivados del latín, como los demás de la península, comporta, sin embargo, en su *corpus* lexical un inmenso caudal del préstamos latinos y románicos. Tal acervo importado puede llegar a más del 70 % del léxico tradicional del euskara. Sin duda, todo ese aluvión de voces de extracción latina y románica (léase gascona, castellana antigua, aragonesa, francesa, etc...) ha experimentado el tamiz de la fonética euskérica al pasar a nuestro acervo lexical, pues voces de la tradición, como *legea*, *bakea*, *kaikua*, *gauza*, *ispilua*, *piperra*, *goilarea*, etc. comportan rasgos de nuestra fonética en cuanto al vocalismo y consonantismo, y, en especial, en lo referente al cambio de las vocales breves y largas latinas, conservación del diptongo *-au*, presencia de oclusivas sonoras, realización de la velar antigua latina (en vez de asibilación posterior, presente en lengua románicas, como en el caso de *makilla* (lat *baccillam*) o bien de *bakea* (lat. *pacem*).

En el texto euskérico el autor afirma categóricamente que tales préstamos han sido altamente beneficiosos para el euskera histórico, pues, de lo contrario, el euskera se hallaría hoy con multitud de deficiencias expresivas —vacíos lexicales—, incapaz de afrontar seriamente el reto de la ciencias modernas, carente, por ejemplo, de toda la rica sufijación latina-románica (tipo *-ari*, *-era*, *-ada*, *-zio*, *-eta*, etc.), llegada a nuestro idioma desde lenguas arriba señaladas. Sin esas aportaciones latino-románicas el euskara, como lengua antigua aún embrional, hubiese, quizás, desaparecido hace muchos siglos, tal como aconteció con el íbero o el celta en la península.

El autor aporta como teoría de ese influjo lexical latino ingente la hipótesis de unas líneas de contacto lingüístico de los vascos con los romanos a través de las campañas guerreras en las que estaban presentes soldados de origen vasco, el influjo del comercio de las poblaciones muy tempranamente romanizadas —especialmente en la zona sur y media de Euskal Herria— caso de parte de Alava y Navarra—, y la particular impronta de la Iglesia (a través de la liturgia y de la enseñanza religiosa, con aportaciones tan patentes al euskara como *anima*, *gurutzea*, *bekatua*, *fedea*, etc.).

Nuestro discurso se centra luego en el examen de ciertos rasgos fonéticos en los préstamos latinos al euskara. En primer lugar en el *vocalismo*:

- vocalismo sencillo de cinco unidades (cuando resultó de siete en gran parte de la ROMANA occidental).
- mantenimiento del diptongo arcaico *-au* (frente a la monoptongación del castellano, entre otras lenguas romances, como en lat. *causam* > *gAUza* (cast. *cOsa*), *lausam* > *IAUza* (cast. *lOsa*).
- conservación de las vocales *i/u* breves (*puteum* > *pUtzu*, *piprem* > *pIper/blper*).
- realización de vocales acentuadas en préstamos latinos.
- caída de vocales átonas en posición interior, como en lat. *hos(pi)tatum* eusk. *ostatu*, lat. *di(gi)talem* eusk. *ditare/ititare*.

En segundo lugar, en cuanto al *consonantismo*:

- comportamiento de las oclusivas sordas en inicio de dicción (sonorización tipo lat. *cruce(m)*, eusk. *gurutze*, *celam* > eusk. *gela*, *causa* eusk. *gauza*).
- mantenimiento de oclusivas sordas latinas entre vocales en interior de dicción, tipo *spatham* > *ezpaTa*, *cucullam* > *kuKulla* (cast. *coGolla*), *rotam* > *erroTa*, el sufijo *-eta* (*ulmETA*, *fraxinETA*) > *-eta* en euskara

(zumarrETA, lizarrETA, mientras que el castellano sonoriza en -EDA, tipo olmEDA, fresnEDA).

- anulamiento de grupos consonánticos como BR, GR, GL mediante una vocal anaptíctica, como el librum > libUru, gratian > gArazia, granum > gAraun, etc.
- mantenimiento de la velar latina en casos *c/g* ante *eli*, como en legem > lege, pacem > pake (mientras el castellano y otros idiomas románicos circundantes asibilan, tipo paZ, paiX, con una realización fonética de posición posterior). Naturalmente, existen en nuestra lengua aportaciones latinas más tardías, como lat. cruce[m] > guruTZE (por *guruKe), lat. coelum > zeru (por *Kelu como en el sardo-lugodorés).
- caída de la nasal intervocálica, como en ballenam > balea, catenam > katea, o bien, aparición de una aspiración (en dialectos orientales, como en los préstamos anatem > ahate (pato), linum > liho).

La misma consideración fonética ha de hacerse sobre préstamos incorporados al euskara en la edad media desde la lengua gascona para dialectos euskéricos como el labortano o bajo-navarro (o el bearnés respecto al suletino), de la lengua castellana medieval para el vizcaíno, guipuzcoano (y alto-navarro, en parte), o bien, del aragonés, básicamente, para el roncalés (así como del francés, desde finales del siglo XVIII hasta hoy, para los dialectos continentales en general).

El autor termina su disertación con una previa consideración sobre la originalidad del idioma vasco, que a pesar de ese aluvión de préstamos latino-románicos sigue siendo un idioma preindoeuropeo, y, por tanto, una lengua con una estructura morfológica fuera del ámbito de las lenguas llamadas neolatinas o románicas. Por tanto, la relación del euskara con el latín (y las lenguas de su entorno) no tiene rasgo de “in-sistema”, sino de “bi-sistema”.

Luego se hacen algunas reflexiones finales sobre la oportunidad del léxico latino-románico incorporado para la supervivencia del euskara (y tratamiento culto y técnico de nuestro idioma).

JOSE M^a URKIA ETXABEren Harrera hitzak

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Zenbakizko Adiskide bezala
Luis M^a Mujika Urdangarinen hitzaldiari erantzunez

GIPUZKOAKO EAEko batzordeak, gure hizkuntza, euskara, bere bizitzan aztergai nagusietako bat izan duen Adiskideari, Luis M^a Mujika Urdangarin jaunari, harrera egiten dio.

Txomin Agirre eta Kritika Sariak bere garaian eskuratu ondoren, orain gutxi "*Bidean ihez...*" eta "*Nire soneto Beroak*" lanen bitartez, Irun Hiriko Saria lortu duen idazle emankor eta bikaina den Luis M^a Mujika, agurtzen zaitugu.

Bere zuzendaritzapean eta Gillermo Etxeberria eta José Antonio Zabala Unzurrungaga Adiskideen ezin estimatuko laguntzarekin, *EGAN*, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko "Boletín"-aren euskarazko gehiagarriak jaso duen bultzada itzela izan da. Gaur egun, aipatutako pertsona hauen ahaleginei esker, euskarazko aldizkarien artean puntan dagoen horietako bat da.

Adiskideok, Luis M^a Mujikarekin daukagun zorra, kitaezina da.

Mila esker, Luis M^a Adiskidea, eta ildo beretik jarrai dezala zure lanak.

Mujika Adiskidearen bizitza eta curriculumaz zenbait datu azpimarratu nahi nuke:

—1939 Lizartzan jaioa, Donostiako Magisteriza-Eskolako Euskal Dialektologiako Katedra du. Deustuko Unibertsitatean, Sinbologia irakatsi zuen. Santo Tomas eta Barandiaran Lizeoetan, Lengua eta Historia, eta Zorroagako Fakultatean, Filosofia.

- Luis M^a Adiskidea irakasle eta idazle aparta da. Elaberri eta olerki-liburuak, literatur-kritika eta Linguistikari buruzko lanak, artikulua, biltzar-komunikazioak, ikastaroak eta mintegiak... Produkzio idatziaren kantitateak ezezik, horren jarraitasunak eta kalitateak ere hala azaltzen dute.
- Bere lan guztiak aipatzeak luze joko luke. Halere, nere ustez interesgarrienak gertatu diren lanak aipatzera behartuta nago:
- Saiakeran*: Aintzinako sozio-ekonomia; Gizartea eta parasozialismoa; Sistema filosofikoak.... besteak beste.
- Literatur-sorkuntzan*: Bide giroak, Urdin eta Burni, Hitzak ebakitzen, Zortziko hautsiak, Herria eta Bidea, Erromantzan airera, Lehenaren ur sakonetan, Aire neurtuak, Poeta baten narrazio nagiak, eta orain sari-tuak: Bidean ihes eta Nire soneto beroak.
- Sarrera-ikasgaien entzun ahal izan dugun bezela, Linguistika atsegin eta ondo jorratutako gaia du. Gogoan hartu euskal atzizki-sistema eta euskara teknikoaren aurrizki-sistemari buruzko lanak, Euskal Toponimiazko materialeak eta abar luze bat.
Zarautz, Berastegi, Gaztelu, Orexa, Erreterria, Bergara, Donostia, Legazpia eta Lizartzako toponimiak sakon aztertu ditu.
- Literatur-kritikan, bai Lizardiren lirikaz, eta orokorrean euskarazko lirika garaikideari buruz, bai Orixen eta Miranderen lanetan, guztiz interesatuta azaldu da.

Luis M^a Mujika Urdangarin eta bere curriculumari buruzko datu asko eta asko eman daitezke baina, une honetan, gure Adiskidea eta berak Elkartearekin izandako harremani buruzko zehazpen batzuk plazaratu nahi nituzke.

1993an Mexikon ospatutako Elkartearen Historiari buruzko IV mintegian elkar ezagutu genuen. Oroitzapenez beteriko bidaia, ahaztezina. Mintegitan “Etimologías euskéricas en México” izeneko lana aurkeztu zuen, Guillermo Etxeberriarekin batera. Harrez geroztik, gure Elkartean honetan egiten den euskararen erabilpena dela eta, gure arteko erlazioa estutu egin da. Kezkatuta, iruditzen zitzaion, geure hizkuntza hau, geure euskara, zaindu eta bultzatu egin behar genuela. Jakina da, euskararekiko arduratsuak ez zaizkigula falta. Juan Ignacio de Uriak dioenez, Xabier M^a de Munibek, Elkartean honen sortzaileak, euskara “mimatu” eta maitatu egin zuen.

Gure Adiskidea, kezka honekin eta interes handiagorekin, Gipuzkoako Juntan hasi zen parte hartzen ekainetik aurrera. Geroztik, guregandik gertuago dago gure euskara zaintzeko.

José M^º Aycart Adiskide eta Zuzendari-ohiaren esanetan, Elkartean bete-
beharrez inguratutik gaude, eta ez daukagu gure Herriaren alde gogor
saiatzeko eskubidea eta betelana baino. Honela, Euskalerriko Adiskideen El-
kartearen izenean, ustez zure gustukua izango den lana emango dizut:

Gure Elkartean, gure artean, euskara zaindu. Zure laguntzaz eta gure
ahaleginaz hizkuntza indar dezagun pakea eta Herriaren alde lan egiteko sei-
nale izan dadin.

Eskerrik anitz.

ORIXEREN METRIKARI BURUZ

E.A.Elkartean Sarrera Ikasgaia

GILLERMO ETXEBERRIA UGALDEK

Donostian 1997ko Abenduak 29
irakurritako hitzaldia
Kutxa Fundazioaren Dr. Camino Mintegian



Jon Bagüés entrega a Guillermo Etxeberria el diploma de la RSBAP

0.- Sarrera

Hitzaldi hau emateko eskaera hartu nuenean, oraindik erabaki gabe neukan nola mugatu behar nuen Orixeri buruzko hitzaldia. Orixe ikuspegi desberdinetatik azter baitaiteke: hizkuntzalari bezala, idazle-poeta, prosalari, aztertzaile. Azkenean, Orixeren *erritmoari* buruz zenbait adierazpen egitea erabaki dut.

Alde batetik, egin dudan tesian ere Orixeren alderdi hori aztertzen da neurri batean behintzat eta, bestalde, uste dut oraindik aski ezaguna ez den arlo bat dela.

Autore honen berri eman izan denean, oraintsu arte, aurrejuzuguz beteta jokatu izan da neurri handi batean: askorentzat Orixeren izena aski zen itsu-itsuan gure autorea bere osotasunean onartzeko. Besteentzat, alderantziz, Orixe entzute hutsa nahiko zen autore zaharkitu, intransigente, anakronismoz betetako bat bezala irizteko.

Gu, normala denez, ez gara ez batzuekin, ez besteekin lerratuko. Bazter-tze aprioristikotik hainbat urrundu nahi dugu lausengu garaitik. Eta hori uste dut egiteko ordua ere iritsi zaigula, batik-bat Euskal-Herrian zenbait unibertsi-tate desberdin sortu denetik.

Baina Mitxelenak esan zuena ere izan dut gogoan, hau da: "Orain hemen utzi gintuen Orixe urrutixegotik ikusten dugunean, orain da garaia bere lanak hobeto aztertzeko eta zehatzago ezagutzeko".¹ Baina ezagutza horretan inork uste duen baino sorpresa handiagoarekin topatuko garela egunen batean "aurkituko dutela egunen batean "Orixe" arrimenez eta espantuz".²

Beraz, nik erabaki dudan alderdia Orixeren *erritmoaz* zenbait xehetasun ematea besterik ez da. Zenbait xehetasun esan dugu, zeregin guztiaren lana

(1) MITXELENA, L.: "Atariko", in *Orixe-Omenaldi*, Euskaltzaindia, Donostia, 1965, 9. or.

(2) *Ibid.* 8 or.

neretzat hartu gabe, luzeegia eta astunegia izateaz gain, nik dudan baino hezi-keta sakonagoa behar baita.

Halere, bere erritmo poetikoaren zenbait lerro ematera ausartuko naiz.

1.- Orixeren neurtitz ikasketak eta teoria

Lehenengo eta behin Orixeren formazioa begiratu beharrean aurkitzen naiz. Orixeren haurtzaroa Oresa-Huitzi bi herrrietara mugatzen da eta gehienbat bigarrenera.

1888. urtean jaio zen autore honek, hamazazpi urte zituela. hau da, 1905. urtean *jesulagundian* sartzea erabaki zuen. Ondoren lagundi honetan eman zituen *hamazortzi* (18) urte, Xabierren (1905-1907), Loiola (1907-1909), Burgos (1909-1911), Oña (1911-1914), Comillas (1914-1917), Carrion de los Condes (1917-1918), Tutera (1918-1919), eta, Xabierren (1919-1920), Oña (1920-1922), eta, azkenik, Xabieren (1922-1923), harik eta lagundia utzi zuen arte.

Orixek jesulagundiko *itinerarium* honetan hartutako *formazio* klasikoa azpimarratu behar da, lehenengo: latina eta gerkera Xabierren, Humanitateak Loiolan, Erretorika Burgosen, Filosofia Oñan... Ondoren, zenbait lekutan "maisutxiki" lanetan aritu zen Comillasen, Carrion de los Condesen, Tutera eta Xabierren.

Urte hauetan, Orixek *heziketa klasiko* sakona hartu zuen, eta ez bakarrik bereganatu, baizik eta lagundi barnean behartuta egoten ziren latinezko mintzaldiak, olerkiak eta, zenbait kasutan "latinez" soilik mintzatzea. Horren arabera ikus daitezke Orixeren garaiko zenbait poesia, bai latinez, hebraieraz, gaztelaniaz...

Klasikoak ongi menderatzea, *oinarrizko* gertatuko da geroko Orixeren sorkuntzan, poesian batik-bat. Berak bere artikuluetan sarri aipatuko digu latinezko hexametroaren gailentasuna eta euskarari hobekien atxikitzen zaion neurriari buruz jardutean ere haiek izango ditu gogoan, "hexasilabo" oinarri duten neurriak. (ni 52).

2.- Orixe autore "belarritarra"

Orixe autore "*belarritarra*" deitua izan da zenbait autoreren lanetan. Entzumenak garrantzi berezia du Orixerengan, beste zentzunen gainetik. "Orixeren belarri gizona da"la³ esango digu Joxe Azurmendik, "belarria" sei-

(3) AZURMENDI, J.: *Zer dugu Orixeren alde*, Jakin, Arantzazu, 1977, 231 or.

garren zentzumen “bat bezala du Orixek, mendi semeak”.⁴ Aita Onaindiak ere berdin, haren belarria nabarmentzen du, “Orixe belarri onekoa genuela”.⁵ Eraberean Igarabide eta Patziku Perurenak zeinak “zentzu guzien muin eta iturri”⁶ entzumena duela baieztatzen digu. Orixe beraren artikulu ugarietan ere argi eta garbi bereizten da “belarria”ren lehentasuna, belarria da erritmoaren egoki ala desegokitasuna ziurtatzen duena: “belarriak iritzi behar dio” mugimenduari, finean erritmoari. Ordurarteko euskal bertsoak “begientzat eginak dirudite, ez belarrientzat”. Euskal neurtitza berriaren oinarriak jartzerakoan ere, beti entzumena da nagusi: herri mintzoa, “mihi-soiñua”.

“Belarriak”, gisa denez, mintzoaren “soiñua” nabarmentzen du eta hobesten du. Bestalde, gauza jakina da Orixek euskal *herri-mintzoaz zuen ezagutza sakona* haren prosa zein poesia lanaren azterlariak segurtatzen duten bezala. Egilearen azalpenak ere ildo beretik doaz, hala nola hizkuntzaren erritmoaz idatzitakio artikulu eta lan ugariak. Ez bakarrik gure herri mintzoaren ezagutza, baita hizkuntza klasikoena ere, latina eta gerkeka kasu.

Horregatik esango digu euskaldunok, gure lanak egiterakoan, eredu klasi-koen antzera jokatu behar dugula.

Hain zuzen, mintzoaren erritmoa, erritmo belarritarra da. Mintzo hori, bere “tuntuna” izango da prosazko eta poesia lanen oinarria. Edozeinek ere, euskaraz idazterakoan, prosaz zein bertsoz, herriaren prosodiaren nolakotasuna izan behar du gogoan, edozein bertsoaren erritmoa baino askoz aberatsagoa eta aldatsuagoa baita. Haren “mihi-soiñu”ra hurbildu behar da ahal bezainbat: “au bakarrik gogoan ezarri nai nizukete: goazen errirekin; erri badoaieke gurekin”.⁷ Edozein hitz, baita idatzia ere, ez da, berez, isilik irakurtzeko egina, ahoskatzeko baizik: “gure aspaldiko mintzaera yarei au ez ditekela sumatu ixilik eta gaizki irakurriz; iñork ez dioela igarri liburuuri (sic) begiraka bakarrik”.⁸ Orduan eskuratzen du bere naturaltasun guzia.

3.- Sei etena oinarri eta balantza

Orixek “neurtzeko bi bide adierazten ditu: “lelotarako edo kantatzeko egin diranena, ta esateko edo irakurtzeko egin diranena”.⁹ Orixeren ustetan

(4) Ibid.

(5) ONAINDIA, X.: “Orix olerkari”, in *Orix, Omenaldi*, ... 143 or.

(6) PERURENA, P.: “Nikolas Ormaetxea, “Orixe” hiru belarriko gizona”, *Egan*, 1997, 1/2, 79 or.

(7) ORMAETXEA, N.: “Eusko olerkitzaz”, *Lenengo euskalegunetako itzaldiak*, Durango, 1922, 35 or.

(8) ORMAETXEA, N.: “Eusko olerki neurritzaz”, in *Lenengo euskal...*, 44 or.

(9) ORMAEHEA, N.: “Oraindafioko euskal neurtitzak”, 1928, 129 or.

kanturako egin dena irakurtzea aski astuna gertatzen da, aspergarria iruditzen zaio ematen zaion tonu zurruna. Bestalde, eman diren poeten artean “Decheparek, Oihenartek eta Adema Zaldubik egin dituztenak irakurri ezkerro gainekoak ikusirik daudela esan ditekete”.¹⁰

Orixek etengabe mintzo da silaben neurri zehatzen aurka, errimaren aurka eta estrofen lerro orekatuen aurka, ez baitira mintzoari berez dagozkion zerbait, “neurtitz gite ori ez da noski izketak berekin dakarrena”,¹¹ bertsoaren neurkera “gure azentu aldabera eta malguan oinarritu behar da, ez du erritmoak “indar-mintzara”¹² edo azentu intentsibo beharrik, ezta bertso “isometrikoak” ere.

Oinarri berri bat aurkitu beharrean aurkitzen gara, beraz, gure metrikarako hauxe da Orixek egiten duen proposamena: “*igual amplitud de escala con igual cadencia*”.¹³ Orixen egiten duen periodo honen neurkerak, derrigorrezko berdintasunaren gainetik, silaben antzekotasuna aski luke, latinaren antzera, non daktiloko hiru silabak espondeoko biren berdina baitziren edo gaztelaniaz gertatzen denaren antzera, non lerro amaierako esdrujuloak, paroxitonoak eta zorrotzak orekatu egiten baitira. Proposamen berri honetan, *antzekotasuna* aldarrikatzen da *berdintasunaren gainetik*, eta *etena eta etenen arteko mintzakatea* agertzen da oinarrian: “lerroan berean dagon utsarte edo etenak egiten du neurtitza”.¹⁴ Etenek, hemistikio desberdinetan ebakitzen du lerroa gisa honetan: “seinakako igikera nagusi duena, bostekoarekin nahaste eta noizbehinka lau zatikoa ere sar daitekeelarik.

Silaben arteko desberdintasunari buruz “le-zati edo silaba bakoitzari etzaio oinbeste jara (sic) eman behar”¹⁵ esango digu. Musikan gertatzen denaren antzekoa da, non “lau beltz, naiz iru beltz bi kakodunekin, naiz bi beltz lau kakodunekin”.¹⁶ “Por lo tanto el corte de verso, cesura en castellano, cada seis o cinco o cuatro sílabas, combinando siempre con el de seis”.¹⁷

Lerroak, beraz, ez dira izan behar derrigorez isosilabikoak, antzekoak baizik, luze-laburra hemistikioen arabera emana. Erritmoa prosodiaren intonazioara egokitzen bada, ez du silaben arteko bat gora bat behera izateak axolik. Hizkuntzaren izakera melodikoak ez dakar berarekin silaben berdintasunik.

(10) Ibid. 131 or.

(11) Ibid. 128 or.

(12) ORMAETXEA, N.: “E.O.N.”, ... 47 or.

(13) ORMAEHEA, N.: “Acento vasco”, *RIEV*, IXm 1918, 12 or.

(14) ORMAETXEA, N.: “Tankera berriko neurtitzak”, *Euzko Gogoia*, I, 7-8 zb. 1. or.

(15) Ibid.

(16) Ibid.

(17) Ibid.

Beraz, autoreak aldarrikatzen duena "greko-latinoen *logaedikoaren* antzekoa da, hau da, *prosa-bertso* gisakoa, batik-bat "*asklepiadeo*" rena, nahiz "*alkaiu*" renarekin nahaste.¹⁸ Beste hitzetan, "asklepiadeo"aren erara, "sei silabako hemistikioak", edota "alkaiu"ren antzera, bost-sei silabako hemiskioz osatua.¹⁹

Orixek bere egin zuen "sei etena oinarri" deitu zuena, sarri erabili zuen bere itzulpenetan ere, hala nola Georgicasko "Zaldia", edota Jorge Maragall-en "Bei itxua", eta "Kathemerinon"en "Oillaritean" eta "Goizeroko" itzuli zituenan nabarmentzen den bezala, sei silabako hemistikiotan itzuliaz" (ni 140).

Orixek hil zenean argitara eman gabe utzi zituen zenbait poesia A. Xanti Onaindiaren eskutan utziaz. Poesiok "Nere eun oberenak" deitu zituen, eta agian bere asmoa ehun izatea izan zitekeen arren, zortzi bakarrik utzi zituen idatziak. Poesia guzti hauek denak prosaz eginak dira. Poesia horiei egiten dien sarreran, berriro ere berak "asmatu duen igikera edo ritmo"az mintzo da "izketa arrunta dirudina" dela esanaz. Bertso hauen silaben zenbatekotasunak ez duela garrantziarik esango digu. Eta Euskarak hiru silabako hitz asko duenez, eta horretan oinarrituaz "sei-etena artzen dut oinarri, bostekoa ta lauokorekin naste, ederki sartzen baitira mugimendu berean".²⁰ Era hontara egindako neurtitza, 4,5,6. "seikoa nagusitzen dala, tarteka", "musikaz ia prosa bezain bikaiñak dira".²¹

Baina, nahiz berak asmatutako "igikera edo ritmoak" "izketa arrunta dirudina" izan, "eguneroko izketa arruntak, igikera edo ritmoa aldatsuago du ta ederrago, neurtitzik ederrenak baino". Hori erabat lortzeko berak asmatu duen erritmoa prosaz emateari irizten dio egokien. Eta, horrela, teorian zein praktikan, erabateko sintesira iritsi nahi duenez, sarri defendatutako jarreraren azken ondorioetara iritsiaz "lerro laburrei" agur egin eta prosara pasatzen da: "Nik lerro laburrei agur egin diet, eta prosa bezela emango ditut. Ebangeliotik artu ditudan gogorakizunok, irakurleak naierara irakurri betza: nai dunak prosa

(18) "Itzak nola neurtu", in BAZTELU: *Musika ixilla*, Añamendi, Donostia, 48 or.

(19) ORMAETXEA, N.: "Tankera berriko..." 1. or. Ignacio Errandonea, S.J. jaunaren *Gramática latina*, E. Subirana, S.A., Barcelona, 1947, "Métrica" arloan, 269-280 orrietan irakur daitekeen, "Logaedicos" barnean agertzen da asklepiadeia ere: "El asclepiadeo menor, lleva un espondeo, un dactilo más una sílaba larga y, tras de una pausa, dos dactilos: O navis, réferent (6)-in mare te novi (6). Eta baita "alkaiko endekasilaboa" ere: "Qualem ministrum (5) fúlminos álitem" (6).

(20) ORMAETXEA, N.: "Nere eun...", 151 or.

(21) Ibid.

antzera, nai dunak bertso antzera. Bietara eskatu didate adiskide batzuk, eta horra bieri gustoa eman”.²²

Gainerantzeko osagaiak ez dira behaztopa besterik Orixeren teoriarik: ez silaben berdintasuna, ez lerroen luze-laburra, ez errima, ez bertso-lerroen zenbatekoa, ez estrofaren nolakotasun tradizionala.

4.- Orixeren “cantabile”ak. Balantzak

Baina Orixeren teoria hau, esan dugunez, azken urteetan erabat aplikatu zuen bezala, periodoen arteko antzekotasuna sarri erabili zuen bere “cantabile” delakoetan ere. Adibiderik garbiena aurki dezakegu, besteak beste, Euskaldunak poema ezagunean.

Une honetan luze joango litzaiguke “fraseologia musikala”ri buruz hitzegitea, nahiz nere ustez, oso garrantzitsua den musika esaldiak azpian daraman letran duen eraginarengatik edota alderantziz. Baina uste dugu pena merezi duela berak idatzi zuen artikulutxo baten aipamenak eta horri buruz egiten duen aplikazioak.

Bigarren kantua, II Artazuriketa”ko bertsoak, “zortziko txiki”an eginak daude, baina badirudi haserako argitalpenak izan zituen presak zirela eta, nahiko akatsekin argitaratu zela. Eta horien artean akatsik nagusia, Orixek kantu honi ezarri zion oharraren desagerketa. Egia esan, gero egin diren argitalpen berrietan, zuzenketa asko ageri baldin bada ere, ez da ohar hau inondik ageri.²³ *Euskaldunak* poema dela eta, Orixek, kritikak izan zituenez gero, berak jarritako ohar baten faltaz kexatzen da: “Pero tengo la impresión de que en la copia faltaban muchas notas interesantes y de una me consta que se ha suprimido y me perjudica grandemente”.²⁴

Ondoren nota horrek zioenaren berri ematen digu: “Lo que diría poco más o menos así traducido al español: En este canto (segundo) he adoptado una estrofa usada por nuestros improvisadores de hace algún tiempo, que consiste en sustituir musicalmente dos corcheas por una negra, lo que da lugar a la diversidad del número de sílabas en una misma clase de estrofa. En este

(22) Ibid.

(23) ORMAETXEA, Nikolas, “ORIXE”: *Euskaldunak*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1980. Argitalpen hau Ibar jaunaren zuzenketekin ateratzen da. Edizio facsimila denez gero, haserako bertsoak errespetatzen ditu eta eskuz egindako zuzenketak azaltzen dira. Baina, Orixek jarri bide zuen ohar hau ez da inondik ageri.

(24) Orixek, lehen argitalpen hau egin zuenean, ez zuen edizioa bere originalarekin parekatzeko aukerarik izan oraindik artikulua egin zuenean. “Versos a la...”, 41-44 or.

caso, el verso de *siete-seis* sílabas con cesura en medio, la negra sustituible es la primera de cada hemistiquio, o sea, la de comienzo de verso y la de comienzo de segunda mitad de verso. De modo que la medida *siete-seis* se pueda convertir en *ocho-siete*, ya en un mismo verso, ya en diversos de la misma estrofa”.²⁵

Beraz, estrofa hauetako silaben balantza musikaren doinu keran oinarritua egongo litzateke, non zilegi baita “beltz” bat “bi kortxea” bihurtzea. Eta berak egiten duena zehatzagotuz, “kortxea” bat “bi semikortxea”. Beti ere, hemistikioen haseratan egiten da kasu hasuetan. Horrela gerta daitezke behatzekin neurtzen duenarentzat bertso ezregularrak, ez, halere, kantuaren bidez erritmoa daramanarentzat.

5.-Azken balorazioa

Azalpen labur hau amaitzeko, baieztatu daiteke delako “*balantza*” ohiko gauza dela bertso zahar askotan, adibiderik garbientetako “koplak” direlarik, non gertatzen baitira balantza asko eta asko, behatzekin kontatzen duena harritzeraino. Izan ere, silaba bat gora, silaba bat behera, batzuetan bikoa ere ematen baita. Baina, behatzekin kontatzeko ordeztu kantuari jarraitzen dionak, ederki orekatuak topatuko ditu delako balantzak. Izan ere, silaba bat gora edo behera, erritmoa mantenduz, bertso-lerroen iraupenak berdinak baitira.

Gure kantutegietan, beraz, asko dira balantza egiten duten doinuak. Inork esan du letrok akatsez beterik daudela, hau da, ez direla ohiko neurkerara egokitzen. Baina guk uste dugu silabikotasun zehatzetik at dauden neurtitz horiek, azalpen zabalagoa behar dutela, hain zuzen, doinuaren alderditik esplikatu daitezkeela hein handi batean.

6.- Azken hitza

Euskal metrikaren gaia oraindik guztiz zehazteko dagoen alorra da, beste gai asko bezala. Aipagarri dira duela zenbait urte Leioako unibertsitatean eman ziren hitzaldiak, batez ere Patxi Altunaren *Bertso lerroa*, Juan M. Lekuonaren *Euskal estrofez* eta Pello Esnalen *Puntua bertsoalaritzan*.²⁶

Azken hitza, beraz, eman gabe dago metrikaren gai askotan, haien artean puntua, ahapaldia eta beste zenbait... Guk uste dugu azken hitz hori ematera-

(25) Ibid.

(26) Ikus hiru lan hauek. *Euskera*, 39, 1994 urteko alea.

koan, oso gogoan hartzekoa dela Orixek gai honen gainean dioena, praktikaz gainera asko teorizatu baitzuen honi buruz.

Bestalde metrikaren historia diakronokian, hau da, ahapaldi eredu batzuetatik eredu librera ematen den tarte honetan, Orixeren teoria eta praktika bien arteko “bisagra” moduko bat gertatzen da lehen esan dudan modura estrofa zehatzen ereduetatik at pauso bat eman baitzuen aurrera.

**Harrera hitzak
JON BAGUES ERRIONDO-k
egin zituen**

